

Usurbilgo Udala

2017KO ABENDUAREN 19AN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Xabier Arregi Iparragirre

Zinegotziak

Alaitz Aizpurua Labaka
Jone Urdampilleta Urdampilleta
Iñaki Ugarte Agirre
Irene Gartzia Palacios
Miren Josune Estella Arranz
Jose Mari Iribar Zapirain
Josune Urkola Larrarte
Mirari Azurmendi Sorazu
Andoni Atxega San Sebastian
Carlos Perez Fraisoli
Fermin Orue-Echevarria Iturri

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel

Kontu-hartzailea: Karmele Lizaso Ubera

Ezin-etorria adierazi du: Xuban Zubiria Elexpe

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2017ko abenduaren 19an, arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ezohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Xabier Arregi Iparragirre izan da Batzarburua.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2017/10/31KO BILKURAKO AKTA.

Batzarkideek, 2017ko urriaren 31ko ohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: AZAROAREN 20TIK ABENDUAREN 7RA (2017/1159-2017/1251).



Usurbilgo Udala

Alkatetzak 2017ko azaroaren 20tik abenduaren 7ra bitartean (2017/1159–2017/1251) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- ADINEKO PERTSONENTZAKO USURBILGO EGUNEKO ZENTROAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA ZERBITZUAREN KONTRATUA. ESKAINTZA ONENAREN IZENDAPENA.

Jone Urdanpilletak puntu honi buruzko azalpenak eman ditu.

Hasteko, irizpenean jasotzen den moduan, aurrekariak berri eman du eta bost urteko emakida izango dela gaineratu du. Jarraian, irizpenak jasotzen dituen puntuak aipatu ditu.

Batzarkideek, Osasun eta Gizarte Zerbitzuak Batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp.zk.: ID.05/2017-0375

Aurrekariak

Udalbatzarrak, 2017ko urriaren 4ko bilkuran adineko pertsonentzako Usurbilgo eguneko zentroaren erabilera eta kudeaketa zerbitzua emakidaz kontratatzeko espedienteari onespina eman zitzaion, oinarri bezala erabiliko diren Administrazio Baldintza Zehatzen orriekin eta Preskripzio Teknikoen orriekin batera.

Lizitazio iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Kontratatzailearen profileen argitaratu zen 2017ko urriaren 17an eta eskaintza bakarra aurkeztu zen, GSR Gestión de Servicios Residenciales-ena.

2017ko azaroaren 10eko Kontratazio mahaian GSRek aurkeztutako A kartazala eta B kartazala ireki ziren.

2017ko azaroaren 24ko Kontratazio mahaian, berriz, Ongizateko teknikariak B kartazaleko dokumentazioaren balorazioa aurkeztu zuen eta, ondoren, honako eskaintza jasotzen duen C kartazala ireki zen:

- Laneguneko prezioa: 47,12 euro (%4a BEZa 1,88, guztira BEZ barne 49,00 euro).
- Jaiegun eta asteburuetakoko prezioa: 51,77 euro (%4a BEZa 2,07 euro, guztira BEZ barne 53,84 euro).
- Langile berriei orain arteko langileen baldintza berdinak aplikatuko dizkie.

Prezio hauek ez dute lizitazioko gehienezko prezioa gaintitzen.



Usurbilgo Udala

Hau guztia horrela, Kontratazio Mahaiaren proposamena kontutan hartuta, Osasun eta Gizarte Zerbitzuak batzorde informatzaileak, 2017ko abenduaren 13an egindako bilkuran, Jone Urdanpilleta, Josune Estella, Josune Urkola eta Fermin Orue-Echevarriaren aldeko bozkekin, aho batez, luzatutako irizpena aztertu ondoren, Udalbatza Plenoak honako erabakia hartu du:

ERABAKIA

LEHENA: Gestión de Servicios Residenciales S.Coop. Izendatzea eskaintza bakar eta hortaz onena.

BIGARRENA: Gestión de Servicios Residenciales S.Coop. enpresari erabaki honen berri ematea eta errekerimendua egitea, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita 10 laneguneko epean oinarri administratiboetako 28. klausulan zehazten diren agiriak aurkeztu ditzan, hau da, Sektore Publikoko Legearen Testu Bategineko 146.1 artikulua zehazten dituen aurretiazko ukanbeharrak betetzen dituela ziurtatzen dituen agiriak (orijinalak edo kopia konpultsatuak) eta dagokion behin-betiko bermea ezarri izana: 70.306,14 euro.

HIRUGARRENA: Ebazpen honen berri Gestión de Servicios Residenciales S.Coop. Enpresari, Ongizate sailari eta Kontu-hartzaitza sailari ematea.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

4.- 2018KO ZERGA ORDENANTZAK: AKATS ZUZENKETA.

Puntu hau alkatearen proposamen bezala datorrenez diktaminatu gabe, batzarkideek aho batez puntu hau tratatzea berretsi dute.

Alaitz Aizpuruak gai honi buruzko azalpenak eman ditu. 2018ko zerga ordenantzak urriaren 24ko Ogasun batzordean tratatu zituztela eta, ondoren, urriko plenoan hasieraz onartu zirela esan du. Jendaurrean egon den bitartean ez dela alegaziorik aurkeztu eta behin betiko onartzera zihoazela konturatu direla dio transkripzio akats batzuk zeudela, excel taulatik testura pasatzeko orduan egindakoak.

Jarraian, akatsak zein diren aipatu ditu, irizpenean jasotzen direnak.



Usurbilgo Udala

Josune Urkolak galdetu du ea 7.B. puntuan aipatzen dena, "vado" esaten dena den eta baietz erantzun zaio. Argitu da aipatzen den kopurua okupatzen den m²-ko dela, hau da 6,63 €/m².

Batzarkideek, alkatearen proposamena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute:

"2017ko urriaren 24ko Ogasun Batzordeak 2018ko Zerga-Ordenantzak eguneratzeko irizpena eman zuen.

Esandako batzordera bideratutako eta bozkatutako proposamena ez zen guztiz era egokian jaso irizpenean. Horretaz jabetuta, urriaren 31ko Udalbatzarrean bertan hainbat zuzenketa egin ziren eta behin-behingo onartu ziren. Hasierako onespeneren iragarkia azaroaren 6ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Abenduan egin beharreko behin betiko iragarkia prestatzean ohartu gara badirela beste akats txiki batzuk, ondoren jasotzen direnak, eta behin betiko iragarkia bidali aurretik, akats hauen zuzenketa proposatzen diot Udalbatzarrari.

Udalbatzarrak, alkatearen proposamena ikusita, 2018ko Zerga Ordenantzetan honako zuzenketak egitea erabakia du gehiengoz:

6.A. UR HORNIDURA ZERBITZUA

Ur-zerbitzu orokorra

Tarifa finkoa

20 mm arte: 6,3 beharrean, **6,63**.

6.D. DOKUMENTUEN LUZATZE ZERBITZUA

Tarifa hauei kontzeptua gehitu (hutsik azaltzen baitziren):

Udal planoen kopiak:	
Kopiak euskarri digitalean (CD/DVD bakoitzeko)	39,14
Gainontzeko zerbitzuak	Kopisteriko kostua


6.G. JARDUERA LIZENTZIAK EMATEAGATIK ETA JARDUERAREN EDO INSTALAZIOAREN FUNTZIONAMENDUAREN EGIAZTATZE-IKUSKARITZA EGITEAGATIK

Tasa bereziak:

Telekomunikazio azpiegiturak ezartzea: 2.104,002 beharrean, **2.104,00**.

6.J. ARETOEN ERABILERA TARIFAK

Sutegi Aretoa



Usurbilgo Udala

1.- Sutegi Auditorioa

Teknikari eta elementu teknikoekin: 61,30 €/orduko beharrea, **63,00 €/orduko**

3.- Garbiketa

Aretoa: 41,30 €/eguneko beharrea, **43,00 €/eguneko**

7.B. IBILGAILUAK ESPALOIETAN ZEHAR FINKEN BARRUALDERA SARTZEA ETA HORIEN APARKAMENDU ERRESERBA BIDE PUBLIKOAN

Baimendutako ibi iraunkorrarekin

Garajeak, ibilgailu eta urteko: 6,634 izan beharrea, **6,63.”**

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

5.- 2018KO AURREKONTU PROIEKTUA HASIERAZ ONARTZEA.

Alaitz Aizpuruak puntu honi buruzko azalpenak eman ditu.

2018ko aurrekontuak azaroaren 11ko Ogasun batzordean aurkeztu zituztela eta geroztik 2 batzorde gehiago egin direla esan du. Azken batzordean, abenduaren 12koan diktaminatuta datorrela plenora gaineratu du.

Aurrekontua guztira 11.312.980,87 eurokoa dela adierazi du.

Orain, hasierako onarpena eman ondoren 15 egunez jendaurrean egongo direla esan du. Alegaziorik ez balego edo baleude, erantzun ondoren, behin betiko onartuko lirakeela dio eta kapitulu laburtuak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko direla eta aurrekontuen kopia Gipuzkoako Foru Aldundira bidaliko dela gaineratu du.

Alkatearen memorian jasotzen den bezala, aurrekontu hauek egiteko momentuan hiru ardatz nagusi izan dituztela kontutan azpimarratu du.

Batetik, aurrekontuen zero-muga herri jasangarria lortu nahi izatea dela dio. Jasangarritasuna aurrekontu hauetan oinarritzko irizpidea dela gaineratu du. Helburua argia dela dio, gure ondorengoek guk jaso dugun herriaz gozatzeko aukera izatea dela esan du.



Usurbilgo Udala

Ardatz honetan kokatzen dituztela dio hirigintza, ingurumena, zerbitzuak eta obrak lan-ildoak.

Jarraian, egitasmo garrantzitsuenak aipatu ditu, hala nola, HAPOaren lanketa, hondakinen kudeaketa jasangarria lortze bidean Usurbil 0.0 plana eta egitasmoa, eta mugikortasun jasangarriaren norabidean Kale Irekietan ateratako zenbait egitasmo aurrera ateratzeko asmoak. Efizientzia energetikoaren bidean ere aipatu du kontsumo baxuko argiteria bultzatzea.

Bigarren ardatza herri nortasuna indartzea dela esan du. Nortasun ikur nagusiak direla dio euskera, kultura, aniztasuna, parekidetasuna, hezkuntza eta bizikidetzaz. Azken batean, usurbildarren ezaugarri eta balore nagusiak izatea izango litzatekeela helburu adierazi du.


Hirugarren ardatza ongi(z)artea izango litzatekeela esan du. Generoa edo jatorria edozein delarik ere bazterkeriarik gabe eta askatasunez bizi ahal izateko Usurbil jasangarri bat dutela helburu zehaztu du, eta jarraitu du esanez: “ingurumenarekin armonian biziko dena, herritar eleanitzez osatua eta bizikidetzaz eta kultur aberastasuna oinarri euskeraz biziko dena. Usurbilen hobeto bizi gaitezen osasuntsuago eta alaiago, zerbitzu egokiez hornituta eta gure herri eta gure garapen ekonomikoa helburu horren zerbitzura jarriaz. Usurbildar guztiak, izan gazte zein heldu, bizi kalitate hobea eskaintzea izango dute zehatz esanda gure aurrekontu hauek”.

Hiru ardatz horiek ezinezkoak izango liratekeela dio udal baliabideak herriaren zerbitzura jarriko ez balira. Aipatu beharrekoa dela dio gastuetan hiru eurotik bat pertsonal gastuak direla eta arlo publikoan berezko garrantzia baduela eta kalitatezko zerbitzuak aurrera eramateko horren aldeko apustua egiten dutela.

Usurbil Euskal Herriari eta munduari begira ere badagoela azpimarratu du. Hori horrela, aurrekontu hauetan Euskal Herriaren nazio eraikuntza sustatzeko partidak ere badaudela esan du. Halaber, elkartasuna eta internazionalismoa oinarri duten egitasmoak bultzatzeko partidak baita ere.

Aipatutako hiru ardatz horietaz gain, aurrekontu hauek osatzeko irizpide batzuk ere oinarri izan dituztela adierazi du. Hala nola, herritarren eskubideak eta ongizate egoera indartzea, enplegu duina sustatzea, gizarte arloan murrizketarik ez egitea, herritarrek dituzten beharrei erantzuteko baliabideak eskura jartzea edo bermatzea, pertsonak edo herritarrak erdigunean jartzea, berdintasun politikak bultzatzea, hizkuntzaren normalizazioaren baitan euskararen doakotasunean urratsak ematea, herrigintzan aritzen diren eragileei laguntza, diru-laguntzak eta elkarlana, ingurumena babesten duten politikak martxan jartzea eta enplegu publikoaren defentsa.

Aurrekontuak sarrera eta gastu orekatuak izan behar dituela eta, kasu honetan, hala izango dela esan du. Zuhurtziaren printzipioa jasotzen dela dio eta bere ustez sarreretan, zerga, tasa eta prezio publikoen kasuan ordenantza fiskalak zuhurtziaren printzipioa kontutan hartuta kalkulatu direla esan du. Diru-laguntzen eta transferentzien kasuan, bermatuta edo bide egonkor bat badagoela dio, eta kasu honetan ere zuhurtziaz egindako aurreikuspenak jasotzen direla esan du.



Usurbilgo Udala

Fondo Foralaren goera ere azpimarratzekoa dela dio, kantitate esanguratsua baita.

Gastuei dagokionez, gastu arruntak 9.337.000 euroak direla dio eta inbertsioak 1.344.000 eurokoak. Jarraian, inbertsio nagusienak aipatu ditu.

Ondoren, 2018ko aurrekontuak osatzeko prozedurari buruzko azalpenak eman ditu eta hiru hanketan oinarrituta egin dituztela adierazi du. Batetik, lehen zirriborroa teknikariekin batera egindako lanketatik abiatzen dela dio eta behin irizpide politikoak txertatu ondoren, bukaeran berriz ere teknikariekin bi aurkezpen egin zirela esan du. Bigarrenik, aurrekontuak herritarrekin ere konpartitu dituztela esan du, hauen ekarpenak ere jasotzeko auzoz auzo egindako sei saioetan. Eta, azkenik, hirugarren hanka bezala, hiru batzordetan oposizioarekin lanketa egin dela esan du.

Azpimarratzekoa dela dio oposizioaren aldetik ez dutela ekarpenik jaso eta, beraz, ulertzen dutela dio aurrekontu hauekin ados egongo direla.

Ondoren, sarreretan eta gastuetan jasotzen diren kapituluak aipatu ditu, zenbatekoen zehetasunak zehaztuz.

2018ko aurrekontuen ezaugarriei buruz esan du beraien ustez egokiak direla, ahalik eta modu egokienean gastatzeko planteatzen dituztela, gastu korrontea ahal den moduan mugatuz eta inbertsio ahalegina ahalik eta handiena egiteko aukerarekin. Herriaren beharrei erantzuten diela uste dute. Bestalde, banatzailea dela ere uste dute, hau da, gizarte beharrea daudenei baliabideak banatzen saiatzen direla, eta horretarako zenbait programa sozial finantzatu eta proposatzen dituzte. Halaber, aurrekontu kontrolatua eramateko esfortzu berezi bat egiteko borondatea dutela dio, gastu korrontea zuzenki kontrolatuz eta zorpetze mailaren muga hori ere beti kontutan izanik.

Josune Urkolak hitza hartu du. Ez dutela ekarpenik egin, Alaitzek esan duenari buruz, adierazi du egin dituzten hiru batzordeetan behin eta berriz eskatu dutela Zumarteko obran 2018an tokatzen dena, gutxienez, 2018ko aurrekontuetan sartzea, baina ez dela sartzen adierazi du. Ez dakiela dio ekarpen deitu edo proposamen, baina ez dela aintzakotzat hartu esan du.

Azkenengo batzordean onartu zela dio beste modu batetara egiteko aukera bazegoela.

Beraz, Zumartekoa ez denez aurrekontuetan sartu, aurka bozkatuko dutela adierazi du.

Alkateak erantzun dio egia dela batzorde guztietan aipatu duela EAJk Zumarteren plan ekonomiko-finantzarioa eta horri dagokion operazioa ez dela aurrekontuetan jaso, baina beraiak beti esan izan dutela dio gai erabat tekniko dela eta kontu-hartzailetzatik egindako lanketa tekniko baten ondorioa dela. Beraz, Karmele Lizasori



Usurbilgo Udala

eman dio hitza gai honi buruzko azalpenak eman ditzan, nahiz eta jakin batzordeetan behin baino gehiagotan eman izan dituela.

Karmele Lizaso kontu-hartzaileak hitza hartu du eta adierazi du argi eta garbi dagoela gai tekniko delako.

Kontua dela dio duela urtebete 2017rako aurrekontuak prestatzerakoan ere EAJren aldetik planteatu zela Zumartekoa aurrekontuetan sartzea. Erantzun politiko bat egon zela dio, baina bat zetorrena iritzi teknikoarekin, hau da, ez zegoela nahiko informazio era egokian aurrekontuetan sartu ahal izateko.

Ikusita obra hori aurrera ateratzeko eta lehentasuna emateko borondatea zegoela, beharrezkoa zen informazio hori eskuetan eduki zutenean, planteatu zela dio aurrekontuetan sartzea. Aurrekontuetan sartzea izan daitekeela dio urtarrilaren 1ean indarrean sartzen diren hasierako aurrekontuetan sartzea edo edozein momentutan kreditu aldaketa bat egitea. Jada informazio hori bazutenez, departamenduan txostena prestatu zutela dio eta horrekin batera prestatu zela eragiketa horrekin lotuta doazen beste eragiketa batzuk, hau da, maileguaren kontratazioa eta plan ekonomiko finantzarioaren planteamendua. Era berean, aztertu zela ze eragin izan zezakeen momentu batean edo bestean onartzea, eta momentuan baloratu zela egokia zela, zeren horrela, alde batetik, ez zuten aurrekontu espedientea lotzen plan ekonomiko finantzariora eta, bestetik, egokia zen ere paraleloki martxan jartzea mailegua kontratatzen hasteko. Izan ere, entitateekin harremanetan jarri zirenean esanez Usurbilgo Udalak asmoa zuela mailegua kontratatzeke, gehienek segituan eskatu zutela dio ea plan ekonomikoa nola zegoen, beraiek ere berme bat behar zutelako. Plenoak erabaki zuenean mailegua Kutxabank-ekin kontratatzea, entitate hau ere zain egon zela Diputaziotik oniritzia eman arte sinatu ahal izateko.

Azkenengo batzordean ere komentatu zutela dio informazio gehiegi eduki gabe eta jakinda obra handia dela eta bere berezitasun teknikoak dituela, nahiko zaila zela zehaztea ze bolumen egingo den urte batean edo bestean.

Beraz, guzti hau kontutan hartuta, kopuru osoagatik kreditu aldaketa bat planteatzea erabaki zela adierazi du. Erabakia ekaineko plenoan hartu zela eta GAOn argitaratu zela esan du.

Izan dezakeen alde txarra dela dio, ikuspuntu teknikitik beti ere, 2017ko likidazioa egitean obra hau ukitu gabe egongo dela, eta nahiz eta beste inbertsio guztiak %100ean exekutatu, portzentaia %44a aterako dela. Hortik aurrera ez duela inolako arazorik ikusten adierazi du.

Momentuko egoera guztiak kontutan hartu behar direla dio eta argi eduki behar dela obra hau lotuta doala bai planarekin eta baita maileguarekin ere.

Horrela egitea erabaki zela dio eta orain 2018ko aurrekontuetan sartzea teknikoki ezetza borobila dela dio, eragiketa orain ja onartuta eta sartuta baitago. Orain aurrekontua hasieraz onartzen denean, automatikoki hor txertatuko dela adierazi du.



Usurbilgo Udala

Alkateak azpimarratu du hori horrela egitea ez dela gobernu talde honek erabaki duen zerbait, baizik eta kontu-hartzaitzatik egin den proposamen eta lanketa tekniko baten ondorioa dela, eta aurrekontuaren mamiari ezertan eragiten ez diona.

Josune Urkolak dio teknikarien proposamena dela bai, baina azkenean gobernu taldeak hartzen duela erabakia. Berriz ere esan du azken batzordean aipatu zela beste modu batetara ere egin zitekeela.

Kontu-hartzaileak erantzun dio hori baloratuta dagoela eta planteatu zela momentu honetan egokiena zela.

Alaitz Aizpuruak adierazi du azken batzordean aipatu zela bai egiteko beste modu bat bazegoela, baina ahaztu egiten zaiela dio aukera guzti horietan teknikoki egokiena ekarri zela eta pleno honek onartu zuela proposamen hura.

Josune Urkolak dio oker ez badago plenoak gehiengoz onartu zuela.

Alkateak esan du inork ez duela ezkutatu ez orain ez duela urtebete, zeren duela urtebete aurrekontuak onartu zirenean esan baitzuten ezin zutela 2017ko aurrekontuetan Zumarte sartu, oraindik ez zutelako kostuaren hurbilpen bat ere. Esan zutena izan zen konpromisoa hartzen zutela Zumarte proiektuaren garapenean aurrera egiteko 2017. urtean zehar eta konpromiso hori bete dutela dio, izan ere urtean zehar jada garatu baitituzte proiektu bat, plan ekonomiko finantzario bat eta mailegu bat. Orain 2018ko aurrekonturako 2017ko abenduan ez bada jasotzen da 2017ko aurrekontuan ekarpen eta aldaketa horiek jada gauzatu egin direlako. Hor ez dagoela inongo gardentasun faltarik dio, Zumarteren prozesua erabat gardena izan dela. Oraindik ezin duela ulertu dio zertara datorren halako insistentzia eta zalantza Zumarteren proiektuari buruz eta aurrekontu hauek esan nahi dutenari buruz.

Josune Urkolak esan du berari, aldiz, behin baino gehiagotan esan duen moduan, kosta egiten zaiola ulertzea zergatik ez den sartu behar aurrekontu hauetan. Hala ere, gaineratu du behin baino gehiagotan esan duela ez duela zalantzan jartzen proiektu hori aurrera eramango den ala ez. Errepikatu du beste modu batetara egin zitekeela. Aurrekontuak udal baten tresna garrantzitsuena direla, aurreikuspen bat direla eta gero urtean zehar nola garatuko den aldaketak egon daitezkeela dio, baina 2018ko aurrekontuetan aurreikuspen bat badutela dio Zumartek zenbat beharko duen eta hori dela sartzea eskatzen dutena, eta gainontzekoa, urte bat baino gehiagoko obra izango denez, kreditu konpromisoetan sartu daitezkeela dio.



Usurbilgo Udala

Alaitz Aizpuruak adierazi dio Josuneri ulertzen duela zer esan nahi duen, baina gai tekniko bat eztabaidatzen ari direla eta bera (Alaitz Aizpuru) ez dela inor kontu-hartzaile batek esaten dionaren aurka joateko. Halaber, ez dakiela ulertzen den egiteko modu desberdinak aipatzen direnean, modu bat izan zitekeela proiektu guztia aurrera eraman ahal izateko 2 milioiko kreditu aldaketa bat 2017ko aurrekontuetan sartu ordez, kreditu aldaketa bat egin milioi batekoa eta kreditu konpromiso bat hartu 2017 eta 2018rako, edo ekainean onartu beharrean 2018ko aurrekontura arte itxoin eta esleipena atzeratu zitekeela dio, modu desberdin asko zeudela adierazi du. Baina egokiena, kontu-hartzailetzatik esaten zenaren arabera eta lehenetasunak lehenbailehen aurrera atera ahal izateko, hartutako konpromisoei jarraiki, egin dena izan dela azpimarratu du.

Proiektua mahai gainean dutela eta lizitazioa martxan jarri behar dela dio, 2018an lan horiek martxan jarri eta 2019an bukatzeko. Eta hori lehenbailehen eta teknikoki modurik egokienean gauzatzeko bide egokiena hau izan dela berretsi du, ez dagoela sekretu edo bestelakorik gaineratu du.

Fermin Orue-Echevarriak bi gauza aipatu ditu, batetik, inbertsioei dagokienez ados dagoela dio, herriarentzat inbertsio onak iruditzen zaizkiola. Bestetik, ordea, legealdi hau hasi zenetik dabilela dio eskola publikoaren korapiloa askatzeko edo zerbait aurreratzeko nahian. Jarraitu du esanez 2016ko aurrekontuetan sartzeko eskatu zuela eta ez zitzaiola kasurik egin, iazko abenduko plenoan 2017ko aurrekontuekin akordio bat lortu zutela, zeinaren baitan bera abstenitu egingo zen gutxienez Jaurlaritzarekin hitz egitekotan. Urtebete pasa dela eta iaz bezala daudela esan du, nahiz eta Zumarteko gaiarekin hezkuntza sailburuarekin egon, eskola publikoaren gaia ez zutela atera, eta horrek asko harritzen duela azpimarratu du. Hau horrela, gobernu taldearen aldetik ez duela eskola publikoaren gaiarekin asmorik ikusten eta engainatuta sentitzen dela dio. 2018ko aurrekontuetan aurka bozkatuko duela adierazi du.

Alkateak erantzun dio, hainbat gauzen artean, aurreko urtean esan zitzaiola hezkuntza sailburuarekin bilera eskatuko zuela gobernu talde honek, eta bilera hori eskatu dutela baina ez dutela erantzunik jaso. Gainera bilera eskatzeko alkatetzatik sailburutzara bidaltzen den eskutitz formal horretan esaten dela udaleko gainerako alderdiekin ere bilera hori egin nahiko luketela, era berean, sailburuari esplikatzen zaiola gaineratu du zein den gaia, zein diren aurrekariak, Usurbilgo hezkuntza sistema nola antolatuta dagoen, etab. Bilera hori egiterako sailburuaren aldetik horrek eskatzen duela esan du, berak eta bere aholkulariek lanketa bat egin behar dutela. Ulertuko duen moduan, alkatea badoa sailburuarengana Zumarteri buruz hitz egitera, gainera beste alderdiekin joan gabe, gainera harremanak dituen herriko beste pertsona batekin, ez dela hasiko besterik gabe herriko eskola publikoei buruz hitz egiten, gauzak beste formaltasun batekin egin behar direla uste du.

Bestalde, alkateak uste du Ferminnek planteatzen duen gaia ez dela aurrekontuetan jasotzeko moduko gai bat, baizik eta herri honetan dagoen afera edo gai estruktural bat dela dio. Lanketa sakon baterako gaia dela uste du. Gogorarazi du aurreko



Usurbilgo Udala

legealdiaren bukaeran herri honetan urtebete baino gehiago iraun zuen hezkuntza prozesu bat egin zela.

Cristina Uriarte sailburuarekin eta bere aholkulariekin bilera hori egiteko saiatzen jarraituko duela hitz eman die alkateak.

Bestalde, batzordean esan ziela dio Jaurlaritzan gobernu ardurak dituzten bi alderdiek (EAJ eta PSE), alkateak berak baino irismen errazagoa izango dutela, jakinik Cristina Uriarteri udal honetatik bilera hori eskatu zaiola, kontaktuen bidez bilera hori errazteko edo arintzeko eta aktibatzeko.

Josune Urkolak, azkena aipatu duen horri buruz esan du, berak, lehenengo aldiz alkateak bilera hau eskatu zuela jakin zuela batzordean Ferminek galdetu zuenean eta alkateak erantzun ziola "uste dut idatziz eskatuta dudala". Jakitun dela dio duela pare bat aste bigarren eskaera egin zela.

Alaitz Aizpuruak adierazi du oker ez badago plenoren batean aipatu zela, Ferminek galdetu zuenean bilera hori nola zegoen. Bestalde, egunero sarrera eta irteera guztiak jasotzen dituztela esan du eta irteera eman zaion eskutitz bati buruz ari direla, ez dela ezkutuan egin den zerbait.

Fermin Orue-Echevarriak esan du zazpi hilabete pasa direla eskutitza bidaltzerako, eta horrekin gobernu taldearen asmoa ez duela argi ikusten eta, are gutxiago, lau hilabete geroago erantzuna ez eskatzeagatik.


Bozkatzera pasa aurretik, Alaitz Aizpuruak adierazi du Udal Arauan zuzenketa bat egin behar dela, sailkapen organikoan, Antolakuntzan, arduradun politikoa Alaitz Aizpuru dela eta ez Xabier Arregi.

Karmele Lizaso kontu-hartzaileak aipatu du hurrengo puntuan aztertuko diren lanpostuen zerrenda eta plantila organikoa pertsonaleko eranskin bezala gehituko zaizkiola espediente honi.

Batzarkideek, Ogasun Batzordearen irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute:

"2018 ekitaldirako Aurrekontu proposamena aurkeztu zuen Alkateak 2017ko azaroaren 11ko Ogasun Batzordean. Geroztik, beste bi Ogasun Batzorde egin dira, azaroaren 24an, zuzenketa aurkezteko eta abenduaren 12an Udalbatzarrerako irizpena emateko.

Azken batzorde honetan, beharrezko azalpenak eman eta gero, bozketara jo da.



Usurbilgo Udala

Beraz, Ogasun Batzordeak abenduaren 12an osaturiko irizpenean, gehiengoz, EH Bilduren aldeko botoekin (Xabier Arregi, Alaitz Aizpurua eta Jone Urdanpilleta), EAJren (Josune Urkola) abstentzioarekin eta PSEren (Fermin Orue Echevarria) aurkako botoarekin, luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

1.- Alkatearen behin betiko 2018ko Aurrekontu Proposamena behin-behingo onartzea, hurrengo laburpena duena, eta erantsirik doan Aurrekontua gauzatzeko Udal Araua ere biltzen duena:

	SARRERAK	2018
I	Zerga zuzenak	2.996.576,00
II	Zeharkako zergak	651.000,00
III	Tasak eta besteak	2.244.473,76
IV	Transferentzia arruntak	5.132.758,61
V	Ondare sarrerak	64.172,50
	Sarrera arruntak:	11.088.980,87
VI	Inbertsioak besterenganatzea	0,00
VII	Kapital transferentziak	224.000,00
IX	Finantza pasiboak	0,00
	Kapital sarrerak:	224.000,00
	SARRERAK GUZTIRA	11.312.980,87
	GASTUAK	2018
I	Langile gastuak	3.805.500,00
II	Ondasun eta zerbitzu arruntak	4.674.463,00
III	Interesak	20.000,00
IV	Transferentzia arruntak	837.299,00
	Gastu arruntak:	9.337.262,00
VI	Inbertsio errealak	1.344.096,00
VII	Kapital transferentziak	87.622,87
VIII	Finantza aktiboen aldaketa	0,00
IX	Finantza pasiboen aldaketa	544.000,00



Usurbilgo Udala

	Kapital gastuak:	1.975.718,87
	GASTUAK GUZTIRA	11.312.980,87

2.- Behin hasieraz onartutako Aurrekontu Proiektua jendaurrean jartzea 15 egunez Iragarki Oholean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz.

3.- Jendaurreko epea iraganik, Aurrekontu Proiektua behin betirako onartua gelditzen denean, kapituluka laburtuta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta bere kopia bat Gipuzkoako Foru Aldundira igortzea.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz eta Jose Mari Iribar Zapirain.

Aurkako botoak: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

6.- 2018KO LANPOSTUEN ZERRENDA ETA PLANTILLA ORGANIKOA HASIERAZ ONARTZEA.

Alaitz Aizpuruak adierazi du aurrekontuekin lotuta doan zatia izaten dela honako hau.


Prozedurari buruz azaldu du orain hasieraz onartu, hamabost egunez erakusketa publikoan jarri eta alegaziorik ez balego, behin betirako onartu eta GAOOn argitaratuko liratekeela.

Jakinarazi du ez dagoela aparteko aldaketarik, soilik, izan diren jubilazioen ondorioz bi postu hutsik geratu direla eta etxez etxeko langile bati ezgaitasun egoera errekonozitu zaionez postu hori ere hutsik geratu dela gaineratu du.

Bestalde, brigadako postuek dituzten gida-baimenak plantilan jaso direla ere esan du.

Batzarkideek, Pertsonal Batzordearen irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute:

“Alde batetik, Apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegileak 126. artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 90.1 artikuluan jasotakoaren arabera, urtero Udal aurrekontuarekin batera Plantilla onartu behar da.



Usurbilgo Udala

Bestetik, apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegileak 126. eta hurrengoetan eta uztailaren 6ko Euskal Funtzio Publikoari Buruzko 6/1989 Legeak 13. artikulua eta hurrengoetan lanpostuen zerrenda arautzen du.

Horretaz gain, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, 14-15. artikuluetan jasotzen du Aurrekontua onartzeko jarraitu beharreko prozedura.

Gaia 2017ko abenduaren 12an egindako Pertsonal Batzordean eztabaidatu ondoren gehiengoz onartua gelditu da, hurrengo bozkek eman direlarik:

- Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Jone Urdanpilleta Urdanpilleta, Fermin Orue-Echevarria Iturri.
- Abstentzia: Josune Urkola Larrarte.

Beraz, hau guztia kontutan harturik, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du gehiengoz:

ERABAKIA

LEHENENGOA: Erabaki honi erantsita doan Usurbilgo Udaleko 2018ko Lanpostuen Zerrendari eta Plantilla Organikoari hasierako onarpena ematea.

BIGARRENA: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzea eta hamabost egunez erakusketa publikoan jartzea, erreklamazioak edota alegazioak aurkeztu ahal izateko. Epe horretan erreklamaziorik ez balego, behin betikotzat onartua izango litzatekeelarik.

HIRUGARRENA: Behin betikoz onartu ondoren, bi dokumentuak, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.“

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Abstentzia: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

7.- GALDERA-ESKAERAK.

Ez da galdera edo eskaerarik egin.



Usurbilgo Udala

Plenoari amaiera emateko, alkateak jakinarazi du Santo Tomas egunean eguerdiko 13:30ean udaletxean bertan lun-txa izango dela langile eta hautetsientzat, eta gonbidapena luzatu die batzarkideei.

Alkateak batzaraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 19:00etan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.